


AIURRI

BETERRI-BURUNTZAKO ASTEKARIA



"Berdintasun Oihalak" ekimena, larunbat honetan

Bigarren edizio honetan, martxa bakarria izango da San Juan Bataiatzailea adinekoen egoitzatik abiatu eta Bekoplazan amaituko dena / 6-9

Martxoak 8

Ekitaldi-sorta datozen egunotan, Andoainen eta Urnietan / 9

"Zatozte Urnietako Sarobera irri, kantu eta dantza egitera", Marimotots pailazoaren gonbita / 3

Martxoaren 15ean "Badon" opera garakidea ikusteko lau sarrera bikoitzen zozketa / 3

Gorka Urbizu sortzaileari elkarrizketa "Hasiera bat" eta "Kaier bat" aurkeztu berriren / 10-11

berria
EREMONTE TXAPELKETA 2024

MARTXOAK 9 LARUNBATA 16:30EAN
GALARRETA IAI ALAI HERNANI

1. PARTIDA (3 SETORAK)
IRAZU - ZALDUA vs
JABALERA - GOIKOETXEA VI

2. PARTIDA (3 SETORAK)
ANSA II - AZPIROZ vs
SEGUROLA - BARRENETXEA IV

3. PARTIDA (3 SETORAK)
GOIKOETXEA V - MARTIRENA vs
LOITEGI - JUANENEA

Ikusi jaiakel! Itaki
+ ikuskerak! YouTube bidez:
@galarremontetxapelketa

ORONA | EREMONTEA BIZIRIK | EUSKADI | SUKIA | AIURRI

Prest dira urnietarrak lasterketa erraldoirako

Herriko hainbat eragilek osatzen dute Korrika Bartzordea eta askotariko ekintzak antolatu dituzte KORRIKAren atarian. Birritan igaroko da lasterketa herritik, 19an eta 23an

Alba Cabrera Jauregi URNIETA

Astebete eskas gelditzen da, soilik, Irunen euskararen aldeko lasterketarik erraldoienari hasiera emateko. Martxoaren 14an hasi eta Euskal Herriko zazpi lurraldeetan ibili ostean, Baionan lur hartuko du KORRIKAK. Hala, beroketa-lanetan hasiak dira, jada, makina bat euskaltzale, baita Urnietan ere. Martxoaren lehenarekin, hasiera ezin hobea eman zioten udaberriaren atariari donezaka herrikidek. Al-tuna sagardotegian elkartu ziren joan den asteko ostiralean, Korrika Kulturalaren eskutik, kupelen bueltan, kantuan ari-tzeko. Inñistorraren, Kantazaunen, AEKren eta Aiurriren eskume-nez antolatutako hitzordua izan zen eta gozotik ibili ziren, euskal kantuak lagun.

Behin tripa bapo eta upelari hiruzpalau bisita eginda ekin zioten abesteari. Fermin Zinku-negi herrikideak, trikitiarekin, melodia ipini zien, atzoko eta

gaurko kantuei. Altunara gerturatutako jendearen jakin-mina piztu zuten eta kantu-liburuxkak eskuan, sagardotegi guztia jarri zuten abesten.

Bi aldiz, korrika

Zein baino zein bereziagoa izango da, aurten KORRIKA urnietarrentzat. Izan ere, behin ez, birritan igaroko da lasterketa herritik. Lehen aldiz, hilaren 19an, astearte iluntzean, Hernanitik etorriko da, Oztaran alde-tik, 21:38an, zehatz mehatz, segidan, Lasarte-Oriaranzko bidea hartzeko. Handik egun batzue-tara sartuko da berriro eskual-dean lasterketa, hain justu ere, martxoaren 23an. Andoaindarran eskutik iritsiko da lekukoa, larunbat arratsaldean, 16:42 alde-ra. Bada, hain justu, "Korrika Eguna" egitarau oparoa antola-tu du Urnietako Korrika Bartzor-deak egun horretarako.

Goizean, Egape Dantza Tal-dearen ikuskizuna izango da;

musika-eskolako ikasleek musikaz girotuko dute Urnieta, eta Poxta Zaharreko kideek bertako produktuen dastaketa antolatu-ko dute. Hori guztia 11:30etik 14:00etara izango da San Juan plazan, eta, eguraldi txarra egi-nez gero, Egapeko estalpean.

Busa, Urnietatik Baionara

Urnietako AEK-k jakinarazi duenez, oraindik aukera dago martxoaren 23ko ibilbidean ki-lometroa erosteko. Bestalde, autobusa antolatu da, martxoaren 24rako, Baionan izango den KORRIKA amaiera egunerako. Txartelak salgai izango dira euskategian, 13 eurotan.

MARTXOAREN 23AN EKITALDI-SORTA ANTOLATU DA, KORRIKA URNIETARA IRITSI AURRETIK



Korrikaren aldeko kantu-afarian giro aparta sortu zen. Argazki eta bideo-sorta ikusgai daude Aiurri.eus webgunean. AIURRI



Altunara gerturatutako jendearen jakin-mina piztu zuten Kantazaunekoek eta kantu-liburuxkak eskuan, sagardotegi guztia jarri zuten abesten. AIURRI



AIURRI

Martxoaren 19an eta 23an, Urnietan barrena

Datak ezagunak badira ere, komeni da gogoan hartzea eta planak egiten hastea. Emozioz beteriko unea baita Korrika, eta adin guztietako herrikideak hurbildu daitezke parte-hartzera. Espaloitik txalo eginez, metro

batzuk korrika arituz, nor bere ikastetxe edo erakundearekin lekukoaren atzetik kilometroa osatuz nahieran bat egin daiteke KORRIKArekin. Urnietan zori-koekoak dira, aurten, birritan pasako baita bertatik.



MARTXOAK 19, ASTEARTEA

KM	Udalerrria	Tokia	Ordua
1342	Urnietan	GI-2132, 14b	21:38:37
1343	Urnietan	Oztaran	21:40:26
1344	Urnietan	Oztaran, 4	21:43:30
1345	Urnietan	Lizardi, 1	21:48:42
1346	Urnietan	Lasarterantz	21:52:10
1347	Urnietan	Elutxetako bidegurutzean	21:54:46
1348	Lasarte-Oria	Kostegi	21:58:32

"Zatozte Urnietako Sarobera irri, kantu eta dantza egitera"

"Ez gara jaitsiko" ikuskizun berriena eskainiko dute pailazo ezagunek, datorren martxoaren 15ean



Porrotx eta Marimotots pailazoek, bideo bidez, gonbitea luzatu dute. KATXIPORRETA

Erredakzioa URNIETA

Astebete barru iritsiko dira Porrotx eta Marimotots haurren pailazo maiteenak Urnietara. Pandemiak eten zuen joera polita, izan ere, urtero hurbiltzen ziren Egapeko jolastoki estalira.

Bueltan dira, beraz, Urnietara. AEK euskaltegiak, Aiurri astekariak eta Urnietako euskaltegiek antolatuta, Korrika Kulturaren ekitaldia izango da. Ikuskizun berriena taularatuko dute, gainera.

Martxoaren 15ean, saio bikoitza, Saroben

Ostiralarekin, bi saio eskainiko dituzte. Lehena, 17:00tan. Eta, bigarrena, 19:00tan. Sarreraren prezioa 8 eurokoa da eta honezko salgai daude Sarobe ondoko BKN kafetegian, Andoaingo Zumea kaleko Ernaitza liburutegian eta Aiurriko bulegoetan.

Familian ikusteko aukera paregabea da. Oraingoan, gainera, ingurumenarekiko arreta berezia jarri nahi dute pailazoek: "Marimotots zuhaitz baten adaburura igo da, han goitik lurra hobeto ikusteko. Pirritxek eta Porrotxek atzetik jarraituko diote. Eta zuhaitzez zuhaitz eta adarrez adar, espero gabeko lekuetara helduko dira".

Korrika Kulturara, Urnietan

Korrika Urnietara iristear da eta herriko euskalgintzak giroa berotzeko ekitaldi-sorta antolatu du. Lehena aurreko ostiralean egin zen, Altuna sagardotegian. Bigarrena martxoaren 15ean izango da, pailazoen emanaldi bikoitzarekin. Gogoan izan, aurretik, Korrika hilaren 19an eta 23an igaroko dela Urnietatik.



Badon ikuskizunaren aurkezpen-ekitaldia. GOIENA

Badon opera ikusteko 4 sarrera bikoitz zozkatuko ditu Aiurrik

Ikuskizun berritzailea datorren martxoaren 23an egingo dute Andoaingo Basteron, 20:30ean hasita

Erredakzioa ANDOAIN

Aiurri astekariak, Korrika Batzordearekin eta Bastero Kulturagunearekin lankidetzan, Badon opera garaikidea ikusteko 4 sarrera bikoitz zozkatuko ditu. Zozketan parte-hartzeko baldintza bakarra dago: Aiurri-

ko harpideduna izatea. Zorte on, beraz, parte-hartzaileei.

Parte hartzeko izena eman behar da

- Whatsapp: 619 163 537.
- Emaila: diseinua@aiurri.eus.
- Telefonoa: 943 300 732.

Pirritx, Porrotx
eta Marimotots

EZ GARA JAITSIKO!

Martxoak 15, ostirala
Sarobe antzokia. URNIETA
Bi saio: 17:00 / 19:00

8€ Sarrerak salgai:
BKN, Ernaitza, Aiurri

AIURRI
aek
AIURRI
URNIETA

Urnietako udala



Urnietako ordezkariak zabala elkartu zen Batzar Nagusien kanpoaldean. AIURRI

Andoaindik eta Urnietatik Batzar Nagusietara

Gipuzkoako nekazariak eta abeltzainak Batzar Nagusietara eraman zituzten beren ezinegona eta haserrea traktoreak hartuta, joan den ostiralean, ENBA eta EHNE sindikatuek eta GEBEK (Gipuzkoako Baso Elkarte) deituta

Xabier Lasa URNIETA

Eskualdez eskualde, dozenaka nekazari eta baserritar bildu ziren goizez, eguerdiko 12:00etarako guztiak batera Donostiara iristeko asmoz. Buruntzaldekoak eta Aiztondokoak, Andoaingo Ubilluts industrigunean jarri zuten hitzordua. Abiatu aurretik, Asteasuko Bulano baserriko Mikel Arteagak guztiena

adierazi zuen gainezka egin duela eta mobilizatzea beste erremediorik ez zaiela geratu. "Nazkatuta gaude jartzen dizkiguten exijentzi eta arauekin, eta nahikoa da! Oihukatu beharrean gara. Gaurko mobilizazioarekin argi geratzen da ez garela lau katu kalera ateratzeko prest gaudenok, gehienok baizik.

Gure produktuagatik ezin dela gehiago ordaindu esaten digute, eta merkatua ezin dela kontrolatu. Baina ekoizleoi ezin bazaiagu gehiago ordaindu, sektoreak ez dauka etorkizunik. Badatoz hauteskundeak, alderdietan bada gure errealtatearen eza guera dutenak, eta espero dezagun horiekin aldatzea egoera, jai dugu bestela!".

Urnietatik, ordezkariak handia

Urnietatik ere baserritar eta abeltzain mordoak egin zuen bat mobilizazioarekin. Batzar Nagusien atarian, Adarrazi baserriko Inma Iriondiok Arteagaren adierazpenen ildo beretik jo zuen: "Gure lan-baldintzak geroz eta okerragoak dira ez dira aldebresak gure eskaerak errentagarritasunari, burokraziarik eta beste hainbat kontuei lotutakoak. Herritarrek, kontsumitzaileek, ulertzen dituzte gure eskakizunak, eta bat egiten dute; gaurko mobilizazioan ere ikusi da nola babesten gaituzten, errepidera aterata".

Sektorearen etorkizuna ilun dagoela onartu arren, oraindik ere garaiz gabiltzala guztion artean egoera aldatzeko, aldarrikatu zuen Iriondok, "Errentagarritasunaren aldeko neurriak ezarri behar dira, ez dago besterik. Orain 40-50 urte etxean jada aholkatzen ziguten baserrietik ezingo zela bizimodua atera, eta hobe genuela kalera joan, lan bila. Nolanahi ere, batzuen batzuk baserriaren etorkizunarekin sinetsi egin genuen, eta ogibideari gogor eginez eguneroko-eguneroko, segitzen dugu aurrera. Gure ondorengoei gurean badagoela etorkizunik adierazi nahi genieke gogoz, eta horregatik borroka egitea egokitzen zaigu".

Hain zuzen, Aitor (Adarrazi), Xabat (Errekamuño) eta Eñaut (Azkonobieta) Urnietako gazteek ere protestan parte hartu zuten, gurasoekin Donostiara joanda. Argi eta garbi adierazi zuten etxean baserri giroa ezagutu izan dutela txiki-txikitatik, gogoko dutela etxeko lanetan gurasoei laguntzea, eta baita ere, etorkizuna hortik bideratu nahiko luketela.

Eskakizun-sorta

Batzar Nagusietan, guztien artean adostutako agiria irakurri eta ordezkariak duten alderdien esku utzi zuten. Sektoreak aitortzaren premia duela adierazi zuten: "Lehenengo sektoreak elikagai eta lehengai ekoizle izatetik haratago, lurraldearen gehiengo kudeatzen dugu, baina ez zaigu proportzio berdinean aitortzen lan hori, ez babesten gure jarduna, ezta lantzen ditugun lurrak edo zaintzen ditugun animaliak ere. Euskal Herrian, eta Gipuzkoan ere, hau ez da salbuespena, eguneroko ogia baizik". Batzar Nagusietan egin izana azaldu zuten: "Hauek dutelako herritarrok ordezkatzeko betebeharra. Batzuk Foru Aldundia gobernatzen dute, beste batzuk udal edo oposizio aktibo bat egitea tokatuko zaie, Gipuzkoan, Gasteizen, Madrilan edo Bruselan. Denek dute zer esana eta zer egiterik gure egunerokoa hobetzeko".

Gipuzkoako herritarrengana ere jo zuten: "Lehen sektoreak bizi duen egoeraren aurrean, euren elkartasuna eta babesa aldarrikatzeaz gain, beren konpromiso aktiboa eskatzen diegu, egunerokoan, gure lurraldean ekoizten diren elikagai eta lehengaien alde egin dezaten".

Agiriaren mamia, hainbat arlotan banatutako eskakizunek osatu zuten. Hona zeintzuk diren: erakundeen, jendartearen eta sektoreen arteko harremana; ingurumena eta lurra; fiskalitatea; basogintza; basa fauna; azokak; agroseguroa; elikagai katea; azpiproduktuak eta hondakinak; gazteak eta belaunaldi aldaketa; erosketa publikoa; eta azkenik, nekazalturismoa. Agiria, osorik, Aiurri.eus webgunean irakur daiteke.

Andoaingo Ubillutsetik Batzar Nagusietara

Bi aste atzera, nekazari gazteen ekimena izan zen. Aurreko ostiralekoa, aldiz, EHNE eta ENBA sindikatuek deiturikoa. Oraingoa nekazarien protesta-ekitaldia Batzar Nagusietan amaitu zen. Hango egoitzaren kanpoalderaino dozenaka traktore iritsi zen. Atarian zain zituzten alderdi politiko guztietako ordezkariak, eta haiekin bildu ostean amaiera eman zioten protestari.



Nekazariak Gipuzkoako Batzar Nagusien eraikinaren kanpoaldean. AIURRI



Urnietako
udala

ESKERTZA

AITZIBER UGARTEMENDIAREN SENIDEAK

Ez dadila haria eten

Askok jakingo duzuen moduan, otsailaren 25ean, Aitziberri herri eskertza ekitaldia egin zitzaion eta biziki egun ahaztezina izan zen bere gertuko guztiontzat, eta bereziki familiarentzat.

Zuengandik jasotzen ari garen maitasuna eta babesa behar-beharrezkoak izaten ari dira dugun mina xamurtu, eta aurrera jarraitzeko.

Banaka eskerrak ematea ezinezkoa dugunez, lerro hauek baliatu nahiko genituzke, Andoaingo herriari, herrigintzari, lagunei, sudur-gorriei, jasotako maitasuna



AIURRI

hitz bakoitzean, esaldi bakoitzean, bideo bakoitzean, edo kontakizun bakoitzean jaso izan zena eskertzeko.

Eskerrik asko jasotako besarkada eta maitasun keinu guztiengatik, eta gure min eta pozak denon artean partekatzeagatik.

Denboralearen albo-kalteak Leitzaran haranean

Aurreko asteko denboraleak eragina izan zuen Leitzaran haranean ere. Lizarkolako pasealekuan lubiziak eta eroritako zuhaitzak aurki zitezkeen, baina astebururako bidea garbi utzi zuten Udal Brigadako langileek. Leitzaran haranean, aldiz, 4 eta 5 kilometroen artean lubizi handi samarra izan zen. Tamaina eta pisu handiko harriak erori ziren bidera. Zorionez, igaro berri den ekaitzak ez du eragin larriarik izan. Kalte materialak agerikoak dira, baina horiek ere arinak izan dira.



AIURRI

Otietako tunela

Eraberritze-lanetan ari da Zubieder enpresa eta, argazkian ikus daitekeenez, tresneria pisutsua erabiltzen ari dira tunelaren kanpoaldea eta barrualdea berritzeko. Segurtasuna bermatzeko lanak dira. Ezustekorik ezean hurrengo egunetan zabalduko dute tunela.



AIURRI

POSTONTZIA

OSASUN PUBLIKOAREN ALDEKO HERRI PLATAFORMEN KOORDINAKUNDEA

Osasun publikoaren aldeko herri plataformen koordinakundeak manifestazioak deitu ditu, hilaren 16rako

Herri-plataformek kalera ateratzeko deia egiten dugu, Osasun Publikoa defendatzeko. Osasun-arreta publiko, unibertsal eta kalitatezkoa izateko eskubidea oinarrizko eskubidea da, baina eskubide hori nabarmen urratzen ari da EAEn, bereziki lehen mailako arretaren narriaduragatik, Eusko Jaurlaritza aplikatzen ari den murrizketa- eta pribatizazio-politiken ondorioz, Euskadin osasun-arreta egoera kritiko batera eramaten ari baitira.

Osakidetzako desegiteak, pribatizazioak eta murrizketek ondorio kaltegarriak dakartza, asistentzia-kalitatearen narriadura oso larria, bai eta irisgarritasun-arazoak ere pertsona guztientzat, bereziki egoera zaurgarrian direnentzat. Bizi izan dugu gizon baten heriotza Laudion, sendagilerik ez zuen etengabeko arreta-gune batean. Horrek agerian uzten du, besterik gabe, herrialde, eskualde eta herri guztietan bizi dugun arazo estrukturala, ordutegi-murrizketak, itxierak... EAJk eta PSEk ezarritako nekropolitika sanitarioaren ondorioz. Horrek oinarrizko desatentzio sanitarioa dakar, horrek guztion bizitzan eta osasunean dituen ondorioekin.

Herritarrek egoera horiek bizi dituzten bitartean, Eusko Jaurlaritzak entzungor egiten die gizarteak osasun-sistema

publikoa indartzeko egiten dituen eskaerei, eta jasotzen dugun erantzun bakarria osasun publikoa ahultzen eta desegiten jarraitzea da, osasun pribatua gizentzen jarraitzeko. Orain, Osasuneko sailburuak iragarri du aurrekontu sanitarioaren inbertsio-plan handiak egingo direla, eraikinak sortzeko 277 milioi, plantillak indartuko ez dituzten obretan eta adreiluan, eta lehen mailako arreta indartuko ez dutenak; hauek izanda herritarrek egunero lehen pertsonan pairatzen dituzten osasun publikoaren arazo nagusiak, benetakoak eta premiazkoak.

Gure ustez, mobilizazio soziala beharrezkoa da, ez da nahikoa osasun publikoaren egoera herritarren kezka izatea, gauzak aldatzea behar dugu. Egiturazko aldaketak exigitzen ditugu. Lehen Mailako Arreta osasun-sistemaren zentroan jartzea exigitzen dugu, bere aurrekontua gutxienez osasun-aurrekontuaren % 25era handituz, eman diren murrizketa guztiak irauliz, asistentzia-kalitatea exigitzen dugu. Horregatik guztiagatik, martxoaren 16an EAEko hiru hiriburuetan egingo ditugun manifestazioekin bat egiteko deia egiten dugu, osasun %100 publikoa eta kalitatezkoa defendatzeko eta zaintza sistema publiko, duin eta integrala aldarrikatzeko.





Mimendi, Bazkardo, Buruntza eta inguruetak bizilagunak, Bordaberriko enpresen ordezkariak, Aita Larramendi ikastolako artezkaritzako ordezkariak eta C2ak kaltetutakoaren plataformako ordezkari gehiago Arrate frontoiko bilera-gelan. AIURRI

"Ez da Andoaingo arazoa soilik, Gipuzkoa osokoa baizik"

Ez dago itxita A15 eta N1 errepideek bat egiten duten Bazkardoko lotuneari irtenbidea emateko auzia. Gipuzkoako Foru Aldundia eta Andoaingo Udala alternatiba bana aztertzen ari dira. Era berean, Andoaingo plataforma martxan da eta herri-bilera deitu du

Jon Ander Ubeda ANDOAIN

C2ak kaltetutakoaren plataforma martxan da: "Datorren asteazkenean bilera irekia deitu dugu Bastero Kulturgunean. Orain arte egindako lanaren berri eman dugu. Kalera begira, isilik egon bagara ere, irailtik hona, lanean izan gara: Batzar Nagusietan alderdi politikoen ordezkariekin bilduz, udaletxeak deitu duen mahaian parte hartuz, eta herritarrei begira informazio-mahaia eta kotxe-karabana antolatuz. Egindako lanaren berri eman eta gauden lekutik urrats berriak eman nahi ditugu".

Aldaketa nabarmena dago bozeramailetan. Eta, horrekin batera, plataformaren lan egiteko modua aldatu egin dela diote: "Bi alor nagusi garatzen ari dira. Bata, estrategikoa. Eta, bestea, teknikoa. Bigarren horretan, arkitektoak eta ingurumen-adituak agentziakoak elkartzen dira. Andoni Etxezarreta da lantalde horren burua". Etxezarreta bera eta Edurne Ustaritz dira Udalak deitu duten mahaira plataforma ordezkatzeko kideak.

Alor teknikoan zertan ari den azaldu du Etxezarretak: "Udalak

egitasmo alternatiboaren lizitazioa atera du, eta gure zeregina horren jarraipena egitea da. 2008tik hona idatzi diren dokumentuen eta egin diren azterlan ezberdinen irakurketa egin da. Udalak lizitazioa atera du eta horren jarraipena egiteko taldea bat osatuta eta hezita egotea beharrezkoa dela deritzogu. Bereziki, garaia iristen denean, proposamenaren irakurketa eta azterketa kritikoa egin eta ekarpenak bideratzeko. Aurretik egindako azterketa ondo landuta izatea garrantzitsua da".

Datuak eskuan, bileraz bilera

Plataformako bozeramaileek oinarri sendoa eman nahi diote beren argudioei, eta zer hobea datuei erreparatzea baino: "Aldundian egin ditugun bileretara datuak landuta joan gara. Izan dezakegu iritzi subjektiboa gaiaren gainean, baina bilere-tara datuak eraman ditugu. Esaterako, zaratari buruzko oso datu zehatzak eraman ditugu", dio Etxezarretak. Emaitza uste baino okerragoa dela erantzen du Ustaritzek: "Bazkardo, Mimendi eta Aita Larramendi Ikastola inguruetan, gau eta egun, zarata onargarria den maila gorenera iristen da. Baita Sorabillako eremuan ere. Igandea nahiz astelehena izan, berdin du. Pentsatzen genuena baino askoz okerragoa da egoera". Kutsaduraren eragina aztertzea bihurria da. Nondik begiratzen den. Etxezarretak: "Konplexuagoa da kutsadurarena. EAEko irizpideak malguak dira, 2030erako mugak ere ez dira zorrotzak. Aldiz, Europak nahiz OMSez ezarritakoa zorrotzagoa da".

Auziari irtenbidea emateko garaian, bi jokaleku ditugu une honetan. Hasteko eta behin, Andoain osatu den mahaia. Plataformatik diotenez, "mahaian talde politiko guztiak daude ordezkaturak. Baita Sorabillako auzotarrak eta Aita Larramendi ikastola ere. Positiboa da denok ordezkaturak egotea. Bilera horietan tonu eraikitzaile bat dago eta ez da trabak jartzeko giroa sumatzen".

Bigarrena, Gipuzkoa mailan dago. Eta bertan ireki daitekeen fasea interesez jarraitzen du Etxezarretak: "Udalak proiektu alternatiboa idaztea lortzen baldin badu eta Aldundiak ez badu horren aurka egiten, iritsi daiteke unea zeinean bi egitasmo izango diren. Maila bertsuan izango dira bi proposamen, bata eta bestea kontrastatu ahal izateko. Horrek beste egoera batera garamatza".

Foru Aldundiaren egitasmoa lehenago iritsi daiteke. Denbora falta aitzakia izan daiteke Andoaingo Udalak bideratu dezakeen hori berandu datorrela argudiatzeko? Edurne Ustaritzek: "Garbi dugu kompetentzia norena den, baina Andoaingo herriaren beharra ikusita presaka ibiltzea ez da ona. Denbora eskatu dugu Andoaingo Udaletik

Herri-bilera, martxoaren 13an Basteron

Arratsaldeko 19:00tan hasiko da eta bertara andoaindar guztiak hurbiltzera gonbidatuta daude. Hilabete hauetan lan diskretua egin dute, alderdi politikoei eta erakundeetako ordezkariekin solaskidetzari utsiz. Egindako lan guztia eta etorkizunean egin beharrezkoa azalduko dute Bastero Kulturgunean, martxoaren 13an.

lantzen ari diren egitasmoa burutzeko". Plataformak egiten duen lana berresteko aukera baliatu du Etxezarretak, une horretan: "Ubarretxena eta Asensio Foru Diputatuekin eginiko bilera banatan trafikoa antolatzeke eskumena euren dela aitortzen diegu. Baina gu Andoaingo bizilagunak gara eta trafiko horren ondorioak nozitzen ditugu. Eskubidea dugu trafiko horri buruz iritzia emateko eta badirela beste modu batzuk egiteko adierazteko".

Zertan da plataforma?

Ainhoa Aiertzak plataformaren garrantzia nabarmendu du: "Askok uste zuen auzia amaitu zela, baina ez da horrela. Aldundiak exekuziorako egitasmoa noizbait aurkeztuko du eta, berriro, alegazioak lantzeko eta Andoaingo interesak defendatzeko unea iritsiko da".

Herritarren aurrean martxan daudela erakutsi duten arren, egindakoa eta egitera dena azaltzeko unea dela dio Edurne Ustaritzek: "Auto-karabana inflexio-puntua izan zen, hor gaude la adierazteko baliagarri izan zena. Martxoaren 13ko bilera garrantzitsua izango da, egin duguna azaltzeko eta dugun informazioa partekatzeke. Gure helburua auzia Andoaindik Gipuzkoa mailara hedatzea da. Herri arazo hau, eta trafikoan sortzen den korapiloa ez da gure arazoa, andoaindarrona, Gipuzkoa osokoa baizik".



Berdintasun Oihalak eta martxoaren 8ko afariaren deitzaileak, Plaza Morean egindako agerraldian. AIURRI

Berdintasun Oihalak, martxaren edizio berria

Askotariko jatorria duten andoaindarrak saretzea izango da aurtengo martxoaren 8ko helburuetako bat. Horretarako, bi hitzordu prestatu dituzte. Lehena, hilaren 8an egingo duten afaria Zumea plazan. Bigarrena, Berdintasun Oihalak izeneko martxa ibiltaria

Xabier Lasa ANDOAIN

Plaza Morean, emakume andoaindarrak irudikatzen dituen horma-irudiaren azpian, egin zuten aurtengo Berdintasun Oihalak ekimenaren aurkezpena. Jone Larrañaga izan zen bozeramailea: "Horma-irudian agertzen dira Andoaingo emakumeen ordezkariak. Gaurkoan ere ordezkariak zabal-zabal bat dago, Emakumeen Nazioarteko Egunaren bueltan antolatuta dugun ekitaldien berri emateko asmoz. Berdintasun Oihalak ekimenaren bigarren ekitaldia izango da aurtengoa. Iaz, badakizue, berdintasunaren aldeko martxa eta ekitaldia egin genituen. Oihalak erabili genituen modu sinbolikoan, eta modu fisikoan emakumeak saretzen ari ginela irudikatzeko. Saretu ginen, emakumeak batuta, denak batera, indartsuago garelako erakusteko. Bigarren edizioa izango da, beraz, eta aurtengo helburua kultur aniztasuna izango da. Emakumeok eman nahi dugu pauso bat aurrera irudikatzeko



Iaz egin zuten Berdintasun Oihalak ekimenaren lehen edizioa. AIURRI

Andoainen kultur aniztasunak nolakoa izan behar duen. Nolakoa izan behar duen elkarbizitzak, eta nolakoa izan behar duen

berdintasunaren aldeko borrorak. Denok, bat eginda, helburu horren alde askoz indar handiagoa daukagulako".

MARTXOAREN 8KO AFARIAN ASKOTARIKO JATORRIA DUTEN EMAKUMEAK ELKARTUKO DIRA

MARTXOAREN 9AN BERDINTASUN OIHALAK EKIMENAREN BIGARREN EDIZIOA IZANGO DA



Santa Krutz zubian pankarta eta beste jarri zituzten. AIURRI

Mugimendu feministaren sentsibilizazio-lana

Azaroaren 25aren harira egindakoari segida emanez, manifestazioaren aurreko sentsibilizazio lana egin dute

Erredakzioa ANDOAIN

Andoainen bada mugimendu feminista aktiboa, hainbat belaunalditako kideek osaturikoa. Azaroaren 25ean egin bezala, feminismotik zaintzaren ikuspegia eraldatzeko sentsibilizazio-lana egin dute. Aurreko asteburuan hasita, hainbat pankarta ikus daitezke.

Manifestazioa, ostiralean

Ostiral arratsalderako manifestazioa deitu du mugimendu feministak. 18:30ean abiatuko da Goikoplazatik, eta, segidan, herriko kaleak zeharkatuko ditu. 20:30ean, bestalde, martxoaren 8ari loturiko afaria izango da, Zumea plazan. Aiurrik jakin duenez, jendetsua izango da.

“Zaintza da gure lan-ildo nagusia”

JOXPI LASA ITURRIOZ, SAIOA DEL PALACIO AGIRRE ETA MAXUS ETXEBERRIA SANTACRUZ BAGARA

Martxoaren 16an, egitaraua osatu dute, feminismoa eta antimilitarismoa oinarri



Bagarako kideak, pankarta eskuan. AIURRI

Alba Cabrera Jauregi URNIETA
Urnietako Jabekuntza Eskolan du abiapuntua herriko Bagara talde feministak.

Jardunaldiak izaten dira Jabekuntza Eskolaren harira. Edurne Gallo da egungo berdintasun teknikaria udaletxean eta, bere helburua, nolabait, jardunaldien bidez talde bat sortzea zen. Mo-

mentu horretan ez zegoen talde feministarik. Gu jardunaldien partaide ginen eta beti azpimarratzen zigun ea, sortuko balitz, gutako norbait prest egongo ote litzatekeen horren parte izateko. Hala, hortik abiatu ginen. Oso ondo ulertu dugu elkar hasieratik. Lehen bizpahiru bileretan, Edurne etortzen zen gurera,

bidelagun gisa eta martxa hartzen laguntzeko. Gehiagok ere eman zuten izena, baina, orain, normalean, bost kide bildu ohi gara jarraikortasunez. Dena dela, talde orokorrago bat ere badugu, "Bagara sarea". Bertan jende gehiago dago, eta, batzuetan, noizbehinka, baten bat agertzen da.

Orain hiru urte ekin zenioten biltzeari. Martxa hartzeko eta egonkortzeko tartea eduki al duzue, beraz?

Hiru urtetik hona, hamabost egunean behin biltzen egon gara, oporraldiak kenduta, eta maiztasun handiagorekin zenbait jardura jakinerako, izan Greba Feminista Orokorra, izan Martxoak 8...

Talde-dinamikaren gaineko jardunaldi bat egin genuen. Oso aberasgarria izan zen guretzat, talde gisa zein norabide hartu pixka bat zehazteko. Alde batetik, barne-formakuntzari garrantzia eman nahi genion, feminismoari begira, geure burua elikatzeke. Beste alde batetik, kanpora begira, Urnietako emakumei zuzendutako ekintzak egin nahi genituen. Geure arteko rolak arakatu genituen, eta guztiek ematen diogu zerbait Bagarari. Horrela, talde-izaera gorpuztu genuen.

Bost kide biltzen zarete jarraikortasunez. Baina garrantzitsua al da Bagarak sarea edukitzea?

Jakina. Aurten gu moldatu gara, baina, esate baterako, lehengo urteko martxoan, sareko kide batek kartela egiten lagundu zigun, proiektorearekin. Ahalegina egiten dugu, gainera, beraiei gauza garrantzitsuak zabaltzen, zertan gauden jakin dezaten. Bileretara beti izango dira ongi-etoerriak.

Urteko egun seinatueta kalera atera ohi duzue aldarrikapen feminista.

Kosta egiten zaigu kokatzea eta jendearengana iristea. Urteko agendako data esanguratsuak hartu eta horietan zerbait egiten ahalegindu gara. Adibidez, Greba Feminista Orokorren harira, bilera irekia deitu genuen, egun horretan, Urnietan zer egin zehazteko. Lehen pausoa izan zen hori. Izan ere, beste kasuetan ez genuen geure burua horretan ikusten, gu geu gutxi izanik. Grebaren harira, atera ginen kalera, eta, maila batean, jendeak erantzun zuen, bai bileran, bai egunean bertan. Orain, Martxoak 8 aurrean izanik, dinamika hori mantentzen ahalegindu gara. Baina jendeak ez du erantzun. Badakigu "feminismo" hitzak oraindik jendea beldurtzen duela. Horrenbestez, ostiral honetan, gure pankartarekin irtengo gara plazara.

Martxoaren 16an egun osoko egitaraua antolatu duzue, "Desobediencia zibila eta feminismoa". Zerbait aurreraterik bai?

Dohainik da eta kartelean agertzen da nola egin izen-ematea. Egun osoko jardunaldia da, bi zatitan banatuta, goizean eta bazkal ostean. Madriletik etorritako asanblada antimilitaristak dinamizatuko du, eta deso-

bedientzia zibila izango dugu aztergai, feminismotik begiratu. Bien arteko loturari erreparatuko diogu, guztira, zortzi ordu hartzen dituen saio batean. **Zuen hiru urteko bidean, inportantea izan al da herriko gainerako eragileekin harremana estutzea?**

Noski. Baten bat aipatze aldera, Etxeberri plazan, liburuaren festa egin zen joan den urteko ekainean. Hala, gurekin ipini zen harremanetan Ainara de Miguel herrikidea eta irakurketa feministaren txokoan izan ginen, liburu bat irakurtzen. Horrez gain, "Erregularizazioa orain!" herri ekimenean parte hartu genuen, Estela Cuevas urnietarrarekin elkarlanean. Oso egun polita izan zen. Azken boladan, pixkanaka, herri eragileon harremana sendotzen ari da, elkarlana garrantzitsua baita.

Epe motzean zein luzean, nora begira dago Bagara talde feminista?

Zaintza da gure lan-ildo nagusia, eta, gainerako herrietan bezala, gurean ere horri erreparatu nahi diogu, askotariko begiradatik, herritarrekin. Emakumeen Etxea bueltaka darabilgu, era berean, eta, jada, inguruko herrietako proiektuak ezagutu ditugu. Hernanin duten bezala, Urnietan ere Berdintasun Kontseilua osatu nahiko genuke. Horretan gabil-tza eta Jabekuntza Eskolan parte hartzen jarraitzen dugu; has-teko, gure formakuntzarako baliagarria delako; gainera, urnietar gehiago ezagutzeko aukera ematen digu.

EGUN OSOKO JARDUNALDIA ANTOLATU DU BAGARA TALDEAK, HILAREN 16AN

Bi hitzordu martxoaren 8an

Martxoaren 8an, Emakume Langilegoaren Nazioarteko Egunean, bi hitzordu izango dira Urnietan. Itaia gazte mugimenduak elkarretaratzea deitu du. 19:00tan jarri dute hitzordua, Zaldundegi plazan.

Urnietako Udalak, bere aldetik, elkarretaratzea deitu du San Juan plazan. Arratsaldeko 18:00tan izango da.



AIURRI



AIURRI

MARTXOAK 8: ANDOAIN ETA URNIETA

ANDOAIN

MARTXOAK 7

OSTEGUNA

Tailerra: Kulturarteko sukaldaritza.
17:30, Gazte Lokala.

Zinea-dokumentala: "Arnasa betean". Atzoko eta gaurko euskal zinemagileak protagonista.
19:00, Bastero kulturunea.

MARTXOAK 8

OSTIRALA

Tailerra: Txapa-lantegia.
17:00, Ludoteka.

Ikastaroa: Autodefentsa ikastaroa.
17:30, Gazte Lokala.

Manifestazioa: Andoaingo Mugimendu Feministak antolatuta.
18:30, Goikoplazan hasita.
Kontzertua: Haize-arrosa Bizkaiko taldeak askotariko estiloak lantzen ditu: folk, pop, country...
20:30, Bastero kulturunea.

Emakumeen afaria: hartzaindegi-zerbitzua eskaintzen da (aldez aurretik eskatuta). Aldez aurretik eman behar da izena:
• 676 567 724 .
• berdintasuna@andoain.eus.
20:30, Zumea plaza.

MARTXOAK 9

LARUNBATA

Martxa: "Berdintasun Oihalak" San Juan Bautista nagusien egoitzatik abiatuko da. Martxak bat egingo du Bekoplazako ekitaldi nagusiarekin.
12:00, Martxaren hasiera.

Bazkaria: emakumeen bazkaria, Zuen emakumeen topalekuak antolatuta. Aldez aurretik eman behar da izena: 606 929 697. zuenaemakumeentopaleku@hotmail.com.
14:30, Oianume jatetxea.

Topaketa: Buruntzaldeko Emakumeen IV. Pala Topaketa. Parte-hartze irekia.
17:00-20:00, Arrate pilotalekua.

MARTXOAK 12

ASTEARTEA

Antzerkia: "El parto". Umorea du oinarrian antzezlanak, kritika alde batera utzi gabe.
20:30, Bastero kulturunea.

MARTXOAK 14

OSTEGUNA

Aurkezpena: Jon Artanoren "Juanaren istorio harrigarria" liburua. Egilea bertan izango da. Ekintzaile ekologista eta lider soziala zen liburuaren protagonista.
18:30, Bastero kulturunea.

MARTXOAK 16

LARUNBATA

Dokumentala: Zuengatik gara eskubaloi topaketa.
18:30, Bastero kulturunea.

URNIETA

MARTXOAK 7

OSTEGUNA

Tailerra: Leihoen apainketa.
17:00-20:00, Gaztelekua.

MARTXOAK 8

OSTIRALA

Elkarretaratzea: Udal musika eskolako ikasleekin.
18:00, San Juan plaza.

Elkarretaratzea: Itaia.
19:00, Zaldundegi plaza.

Erakusketa: Maite Carrillo eta Anabel Atxaga Urnietako emakume margolariak. Ordutegia: Martxoak 11, 12, 14: 16:30-19:00; Martxoak 13, 15: 18:00-20:00.
19:00, Lekaio. Irekiera.

MARTXOAK 24

IGANDEA

Antzezlanak: "Yerma, La dramatica errante".
19:00, Sarobe. Gaztelekeraz



"El parto" antzezlaneko kideen taldeko argazkia. Martxoaren 12an Basteron ariko dira. GOIERRIKO HITZA

Basteroko erakusketa gertutik ezagutzeko bisitaldi gidatua



Andoaingo Udaleko Kultura sailak, EmPoderArte elkartearekin batera, erakusketa antolatu du. Martxoaren 21erako, bisitaldi gidatua antolatu dute arratsaldeko 19:30ean hasita. Kopuru mugatua izango da, baina bi talde antolatuko dituzte hizkuntzaren arabera, euskaraz eta erderaz. Interesa duenak Bastero Kulturunean leihatilari izena eman dezake. Telefono zenbakia: 943 30 35 40 (10:30-13:30 /16:30-19:30).



Maite Carrilloren margolan-sorta maitecarrillo.art webgunean kontsulta daiteke. MAITE CARRILLO

Jon Ander Ubeda GASTEIZ

Urbizuk "Hasiera bat" diskoaren sortze-prozesuari loturiko liburua aurkeztu du, jendaurrean. TTAPeko eta Aiurriko Jon Ander Ubeda aritu zen galdezka.

Kaier bat aurkezten ari zara. Gutizia baten aurrean gaude. Liburu formako objektu eder bat da. Erosoa, neguko berokiaren poltsikoan sar daitekeena eta argazkiez, el-karrizketez eta Gorkaren eskuiz-kribuez bete. Denbora tarte txikian itzulera bat iragarri duzu: Disko bat, bira bat, kaier bat. Zer gehiago dago txisteran?

Nahikoa eta sobera. Bai, martxan nago. Hasiera bat-en aroa ireki da, eta birari ekin diogu. Zuzenean buru-belarri gabilta. Oso hasiera hunkigarria eta berezia izaten ari da. Diskoa aurkezten nabil eta liburuxka argitaratzeko ideia sortu zen. Hasiera batean, zoro samarra zirudien, bestela ere nahikoa lan bagenuelako. Baina, aldi berean, Ibai Arrieta bezalako argazkilari puska bat izan genuen grabaketa-saioan. Tokia oso berezia izan da, Lleidako Guissona herrian dagoen grabaketa-gunea. Antzoki zaharra da, eta tokiak grabaketa-prozesu osoan eragin du. Hori ere jaso nahi genuen. Liburuxka banuen. Bilaketa prozesu luze bat izan da, eta pista batzuk agertzen dira izenburuen ingurukoak, letrak nondik sortzen diren, diskora joan ez diren ideia solteak, Itziar Ugarteren lana...

Kantuen zerrendari erreparatuta, aldaketatxoak egin zenituen...

Aldaketatxoak ez, izenburu guztiak aldatu nituen. Izenburuekin ez nengoen batere eroso, masterra AEBetara bidali genuen eta bueltan metadatuarekin iritsi ziren. Metadatu horiek garrantzitsuak dira, bertatik zabaltzen baitira plataforma ezberdinetan agertuko diren kantuen izenburuak. Gau hartan, ez, ez, ez... nioen, eta bueltan idatzi nion lana berriz hutsetik hasi behar ko zuela izenburu guztiak aldatuko nituelako. Bat izan ezik, Besterik ez. Gainerakoak bat hitzarekin amaituko ziren; azken orduko burutapena izan zen, gerora pisu handia hartu duena. **Izenburuak ere minimora eraman dituzu. Kantuak ere elementu oinarrizkoekin osatu dituzue eta izenburutaraino iritsi zarete deseraikitze ariketa modukoan.**

Denak badu koherentzia estetikoa. Hitz batekin laburbildu



Gorka Urbizu "Hasiera bat" diskoa eta "Kaier bat" liburua eskuetan dituela. TTAP

“Bakea eta sosegua eskaintzen duen diskoa da”

GORKA URBIZU SORTZAILEA

Denbora tarte txikian, isilune luzea hautsiz, kantu berriak aurkeztu eta aurkezpen-biran murgildu da kantari ezaguna. Hori gutxi ez, eta Kaier bat aurkeztu berri du

badaiteke diskoa, soiltasuna eta gordintasuna aipatuko nituzke. Ez dago artifiziorik, ez dago soberan dagoen ezer. Oso esentziala da; muinera jo dugula, nolabait ere. Irizpide horri pro-

zesu osoan eutsi diogu. Eta hori ikus dezakezue kantuetan, izenburuetan, soinuaren, grabaketa-prozesuan ikus daiteke igandero igotzen ari garen lyric-bideo horietan. Artisautza lana da,

oso soila. Ez du esan nahi erraza denik. Kontrakoa, esango nuke. Hautu hori hartzeko, ez dakit adorea deitu, bada apustu bat ez dena erosoena, kantuek nahikoa nortasun eduki behar

duelako hunkitzeko, norbera nahiz entzulea. Bazen erronka modukoa, eta zorte handia izan dut Jordi eta Joan ekoizleekin bat egiten genuelako soiltasuna bilatzeko gogo horretan. Tentazio orori muzin egin diogu, ahots gehiago edo grabazio-pista gehiago sartzeari saihestuz. Grabaketa zortzi pistako aparailu batean egin dugu eta horrek behartu gaitu abestien konponketetan eta letretan ekonomia handiko lana egitera. Kendu eta kendu ibili gara, kantuak soilduz.

51 hilabete igaro dira zure kantuekin berriro oholtzara igo zaren arte. Denbora behar izan duzu iraganean utzitakoari distantzia emateko. Berri Txarrak egitasmo handi bat zelako, eta denbora behar izan duzu proiektu berri baten bilaketan. Asko estutu zaitu horrek, exijentzia handia sentitu duzu Hasiera bat aurkitu arte?

Prozesua gorabeheratsua izan da. Martxan zebilen tren batetik salto egitea erabaki nuen, abia da handia zeraman trenan. Oso eroso, eta urrutira eramaten ninduen, bestelako bide bati ekiteko. Banekien sortzen jarraitu nahi nuela, baina beste nonbaitetik eta, beharbada, horrelako marka edo etiketa gainetik kenduta.

Oso harro nago egindakoaz, eta niretzako izango da nire bizitzako proiektua. Hor sortu zen komunitate hori, konexio hori jendearekin... Kantuak hor daude, bederatzi disko dira. Ondare hori hor dago, eta oso bizirik dago. Jendeak oraindik ere idazten digu, kantuak bizirik daude eta oso harro nago. Baina, sortzaile bezala, sentitzen nuen inertzia batean murgilduta nengoela eta behar nuela, hasteko, geratu eta atsedean hartu. Balioztatze ere egindakoa. Orain ikusten ditut Berrirekin egindako gauza piloa eta harrিতuta geratzen naiz zenbat gauza egin genituen ikusita. Eta zenbat esperientzia bizi izan ditugun. Asko bete nauen proiektua izan da. Hor dago, lozorroan.

Behin hori utzita, pandemia etorri zen. Mundu mailako pausorokorra izan zen, guri arrazoia emanez bezala. Jende askok pentsatzen zuen prest edukiko nuela zerbait, eta ez nuen ezer idatzita. Niri asko kostatzen zait disko baten aurretik egingo dudana teorizatzea. Ideia batzuk izan ditzaket, baina egin ahala egiten dira gauzak. Itsuaren



Euskal kantagintzan erreferetzi nagusietakoa da, egun, Gorka Urbizu kantaria. TTAP

pareko eskua izan diot disko berriko kantu batean, eta bada pixka bat haztamuka ibiltzea. Sorkuntza hori da. Egon naiz estilo bateko kantuak grabatzen, egon naiz bestelako estiloak lantzen, egon naiz neure buruarekin borrokan. "Zer eskaini behar ote duzun, testuinguru honetan, zure posizio pribilegiatutik". Buruan hori egon da hor, eta halako batean ildo bat ikusten duzu.

Denbora-tarte honetan, jakinda hainbeste lagun dituzula musika munduan, nekagarria izatera iritsi daiteke jendeak zuri etengabe zertan zabilzan eta noizko egingo duzun zerbait galdetzea?

Bai, eta ez. Alde batetik, polita da, ikusten duzulako beste aldean badagoela norbait zuk egingo duzunaren zain, eta hori ere pribilegio bat da. Gauza handia da. Betei esaten dut sortzea bada itsasora botila bat mezu bat daramala botatzearen parekoa. Ibilbide bat badut, erantzun handia izan duena. Badakit badaukala entzun fidel-fidela eta badakit jendea zain eduki dezakedala. Zain bai, akaso, lehen segunduan, baina gero... Niretzat negozioa ezina da zerbait benetako, kalitatezkoa eta beteko nauen zerbait eskaintzea. Eta hori, kasu honetan, ez da bate-erreza izan. Kantu izatera iritsi ez diren ideiak landu ditut, baina forma bat bazutenak. Arrazoi bategatik edo bestegatik buruak esaten zidan hori ez zela orain ateratzeko momentua.

Zailena niretzat hautu estetiko hartzea izan da. Biluztearena, kentzearena. Kantu bat janztea bada erronka bat, baina askoz erronka zailagoa da kantuak minimora eramango ditugula erabakitzea. Pirotekniarik gabeko artefaktua da Hasiera bat. Oso soila, baina bere soiltasunean gauzak gertatzen dira eta gauzak esaten dira.

Hitzaurrean diozu: "Glups. Ze inportanteak abiapuntuak". Jar gaitzen Intxaurrondon, 2024ko otsailaren 23an. Zer abiatu zen orduko hartan? Igandeko emanaldian izan nintzen eta adierazi zidaten ostiralekoan, hasieran, urduri zeundela.

Urduri nengoen, noski! Esztazio modukoa izan zen. Itsasora botatako botilarena aipatu dizut, eta orduantxe zen unea ikusteko zein zen jendearen erreakzioa. Noski, horren zain zaude, jendeak kantuak nola jasoko dituen zain. Taldea berria zen, dena zen berria... Gizartea bera ere, eszena asko aldatu da. Jende askok esan dit behar zuen diskoa egin dudala, babes modukoa topatu duela diskoan, eta sentipen hori izan badu batek baino gehiagok, helburua beteta dago, nire ustez. Niretzat izan delako hori. Diskoak

"PIROTEKNIARIK GABEKO ARTEFAKTUA DA 'HASIERA BAT' DISKOA"

GORKA URBIZU

badu sosegutik. Bakea eta sosegua eskaintzen duen diskoa da eta jendeak opari modura jaso du. Ezustean ateratakoa, gainera. Horrek are eta balio handiagoa eman die kantuei, eta horrekin oso pozik nago. Kontzertua barbaridatea izan zen niretzat. Errespetuzko giroa, ia-ia liturgia modukoa. Isilik egon behar zen, adi. Telefonoak eta gailuak ahazteko gonbita luzatu nuen, eta kasu egiguzue! Hurrengo egunean kasik ez zegoen irudirik, eta hori oso polita izan da. Kantuen indarra txundigarria da, oraindik ere harritzen nauna, intimoa den zerbait kolektibora pasatzen denean. Donostiako kontzertuan, Katamaloren kantua jo eta jendea kantuan hasi zen, Argentinako estadio batean egongo bagina bezala, eta oso hunkigarria izan zen. Mikrofonotik aipatu nuen: "Hau ezagun duzue, baina hurrengo berria da eta, akaso, ez duzue ezagutuko". Eta disko berriko kantuarekin hasi, eta berdin-berdin jarraitu zuten. Misterio eder bat da.

Kaier bat Post It- ez beteta daukat eta dena aipatzea ezinezkoa izango zait. Pasarte batean diozu: "Saiatu naiz ikasten, saiatu naiz ahazten. Saiatu naiz nola-zen-hau. Saiatu naiz gu. Saiatu naiz ni. Saiatu naiz zuek. Saiatu naiz, zin dagit". Zaila izanda, zuretzat, Gorka Urbizu konpositorea izatea?

Bai. Borroka hor dago. Egoa da, eta ez nabil harrokeriarekin lotzen, pentsatzea honek eduki-

ko duen erantzun horretan. Hori da egilearen paradoxetako. Egilearentzat zabilza lanean, baina ez duzu egilea asetzeko lan egin behar. Hori minaz betetako zelaia da. Ariketa bat egin behar da norberarekin. Diot "saiatu naiz nola-zen-hau", eta horrekin esan nahi dut nola zen hau inor begira ez zegoenean. Gogoan ditud disko zaharrak, baina ez dut gogoan nola egiten nuen. Baina ez dut gogoan halako presiorik nuenik. Beharbada, edukiko nuen, gauzak ahaztu egiten direlako. Jaio. Musika. Hil nola egin nuen? Bada, irten egin zen, ez dakit... lana egingo genuen, erruz. Alde horretatik, kantu bat egitea bada beti hasiera bat. Nahiz eta urteak eraman kantugintzan, artisauza lan hori aldatzen doa... Kasu honetan, gainera, obsesionatu nintzen aurreko Gorkarekin etena egon zedin. Horregatik saiatu nintzen beste estilo batzuekin, idazkerarekin ere tematu nintzen dezente. Halakoren batean erlaxatu nintzen eta "zertan zabilza?" esan nion neure buruari. Akaso, ez zen unea hainbeste esperimendatzeko. Bada hari bat hasi nintzenetik, eta ordutik hemen nago. Noski, nabarituko da eta hori ondo dago, neure estiloa delako. Hori garatzen bada, hobetzen bazoaz, nahikoa da. Ez da zertan obsesionatu behar aurrekoarekin antzik ez izateko. Aro hori igaro nuen, eta, zorionez, gaingitu nuela uste dut. Ez naiz obsesionatu. Badira ale batzuk Berri Txarrakekin egongo ez zirenak, beharbada. Estilo aldetik zerbait berria dakarte eta beste batzuek ez hainbeste. Nire idazkera da. **Etxe bat kantuak jende asko hunkitzea lortu du. Kantu hura lehen aldiaren entzun nuenean estilo bertsuan idatzita dagoen Ruper Ordozikarekin Hargiñenea kantuarekin akordatu nintzen. Anaia aipatzen du, Azkarateko estudioa, "kantu bat bizipozaren alde", dio letrak... Zuk, nolabait, etxeako sartu dituzu kantuan. Familia giroko eszena intimo bat kantu bilakatu duzu.** Eszena domestiko batetik abiatzen den kantua da. Tom Waitsek

"TELEFONOAK ETA GAILUAK AHAZTEKO GONBITA LUZATU NUEN KONTZERTUAN"

GORKA URBIZU

Elkarrizketa osoa TTAPen

Gasteizko Santa Maria Kantoiko laugarren zenbakian dagoen Eva Forest Liburutopia ere hasiera bat bizi ari da. Kafea eta liburuak eskaintzen ditu espazio goxoan, Gorka Urbizuk "Hasiera bat" diskoaren sortze-prozesuari loturiko liburua aurkeztu zuen jendaurrean. TTAPek jaso zuen saioak emandakoa. Atari digitaletan. Elkarrizketa osoa eta zuzenean eskaintako "Janela bat" eta "Etxe bat" kantuak kantuak, entzun eta ikus daitezke TTAPen.

zioen kantuak mundura botatzen zituela eta kantuei esaten ziela: "Joan munduan barrena eta gero bueltatu, eta, ahal dela, diruarekin". Ez dut hori esan nahi, baina sekula ez dakizu zein bide egingo duen kantu batek, eta hori ere misterio eder bat da. Batzuetan, fitxa guztiak kantu batengan jartzen dituzu, eta gero, kantu hori hor geratzen da, Katedral bat kantuan diodan bezala hegalki gabe, eta erori egiten da. Etxe bat kantuarekin izan genuen debatea, estudioan. Batetik, estetikoki. Gitarra akustikoarekin jotzen nuen, eta diskoak badauka beste ildo bat, sofistikatu xegoa da. Letrarekin, oso etxeko gauza zela ikusten nuen. Intimoa, domestikoa, zelako. Eta nioen nori inporta zaio nire zakurra, ilobak... Gertatu izan zait diskotik kanpo uzteko tentazioa, eta esan nuen: "Ez". Hau badao diskoan. Puntu. Eta begira.

Egoera horretan irudikatu gaitzke asko eta asko.

Bai, zeren eta gauza pertsonalak edo intimoak izateagatik dira, hain zuzen ere, unibertsalak. Nik ilobak ikusten ditudan tokian besteren batek alaba ikus dezake. Oso hunkigarria da Etxe bat kantuari buruz jaso ditudanak. Eszena domestikoa da, eta badirudi ez dela ezer gertatzen, baina giroan badago zerbait eta hori denboraren iragaitea da, zerbait galtzearen beldur hori. Eta hori bai dela unibertsala.



Txaro Tomasena, artxiboko irudian. AIURRI

Qatar herrialderaino iritsi dira Txaro Tomasenaren balentriak

IGERIKETA Urrezko domina lortu du berri du Doha hirian, 78 urterekin 3 km-ko itsas-zeharkaldia eginda

Erredakzioa URNIETA

Urteak aurrera doaz eta Tomasenaren lorpen bakoitza meritu handikoa bilakatzen da. Urnietarra pozik agertu da Dohan (Qatar) lortutako urrezko dominarekin: "Egin dut, eta sentsazio oso onarekin amaitu dut, eta, gainera, eguraldi zoragarria egin du. Nire entrenatzaile irrifartsu egotea espero dut, oso exigentea baita". Tomasenak hainbat lorpen egin ditu azken urteetan. Oraingoan, urrezko domina lortu du Dohan, 3 kilometroko itsas zeharkaldia eginda, 75-79 urte arteko mailan; ostiralean hasi zen Munduko Masters Aquatics 2024 txapelketan parte hartu zuen urnietarrak. Tracy Clarkson austra-

liarra zuen aurkari, baina, azken momentuan, ez zuen parte hartu. 3 kilometroko zeharkaldia 1h:22:54-eko denboran egin zuen.

Gibraltargo itsasartearen zeharkaldia, hurrengo erronka

Horrez gain, beste hamarnaka garaikur eta domina lortu ditu Tomasenak azken urteetan. Azken lorpen ikusgarria Gibraltargo itsasartearen zeharkaldia izan zen; izan ere, errekorra egin zuen, itsasarte igerian zeharkatu duen pertsona helduena izateagatik, 77 urterekin.

Urriaren 12an Bocaina Erronkari utsiko dio. Zeharkaldi hori Lanzarote hegoaldean hasten da, eta Fuerteventura iparraldean amaitzen da (Corralejo).



0-1 galdu zuten asteburuan. AIURRI

Mailari eustea zailtzen ari zaio Urnietako lehen taldeari

FUTBOLA Azken sei partidak galdu ditu. Asteburuan Mariñoren zelaian ariko dira

Erredakzioa URNIETA

Gorengo Erregionalako gizonen lehen multzoan egoera nabarmen zaildu zaio Urnietako lehen taldeari. Azken sei jardunaldietan partida guztiak galdu ditu eta, ondorioz, mailari eusteko aukerak gutxitzen ari zaizkio. Urtarrilaren 14an lortu zuen azken garaipena Urnietako taldeak, Lengokoak taldea 6-3 garaituta. Geroztik, jokatu dituzten partida guztietan porrota izan dute. Sailkapenean azken arrereko postuan dira eta salbazioa dagoeneko 8 puntura dago.

Asteburuan, 4. postuan sailkatuta dagoen Mariñoren zelaian ariko dira urnietarrak.



Euskaldunako artxiboko irudia. AIURRI

Zazpigarren garaipena jarraian lortzeko aukera dute Ubitarten

FUTBOLA Joera onak bat egiten du Gaztañagaren aro berriarekin. Entrenatzaile denetik den-dena irabazi dute

Erredakzioa ANDOAIN

Gabonen osteko lehen jardunaldian, urtarrilaren 13-14ko asteburuan, Antzuolak 5-1 garaitu zuen Euskalduna. Igor Etxaniz entrenatzaileak ardurak utzi eta bigarren entrenatzaile ari zen Gaztañaga lemaizain bilakatu zen. Geroztik partida guztiak irabazi dituzte. Sei, denera. Eta asteburu honetan Ubitarten jokatu den partidari iritsi daiteke zazpigarrena.

Sei garaipen, 18 puntu denera

Gorengo Erregionala gizonen lehen multzoan bigarren postuan da Euskalduna. Aurretik du Mondragon, liga osoan partida bakarra galdu duen taldea. 50 puntu ditu liderrak, eta Euskaldunak 40. Azken sei jardunaldietan alde nabarmen murriztu du talde urdinak. Euskalduna-Segura Goierri partida jokatu da, asteburuan. Goierriarrak 12. postuan sailkatuta daude.

ESKUBALOIA Ez da jardunaldirik izan asteburuan

Martxoko lehen asteburuko eskubaloia jardunaldia bertan behera utzi zuen Gipuzkoako Federazioak, honako hau argudiatuta: "Lehiaketarik ez da jokatu, indarkeria-mota guztiak aho

batez gaitzesten direla adierazteko. Jokatu ez den jardunaldia, beste data batera atzeratuko da". Auzia otsailaren 17an kokatu behar da, senior emakumezkoen Tolosa CF eta Saieko taldeen arteko partidari. Epaileak neurketa bertan behera uztea erabaki zuen, Tolosako entrenatzaileak epaileari eraso egin ondoren.



Txaro, lorpena eskuratu berri. TOMASENA

Oraingoan bai, Luz Ardidenera

ESKIA Zanpatuz mendi elkarteak asteburu honetarako utzi du eski irteera, aurreko astean baldintzak betetzen ez zirela ikusita. Haizetean eta eguraldi makurra zegoen aurrikusita, eta Zanpatuzekoek martxoaren 2ko irteera astebete atzeratzea erabaki zuten. Larunbat honetan, beraz, egun osoko irteera egingo dute Luz Ardidenera. Gauzak ondo, gozatu ederra hartuko dute.



ZANPATUZ

Nora Mendizabal finalaurrera iritsi da

PILOTA Master Laboral Kutxa eskuz binakakoa, emakumezkoen esku pilota txapelketa, finalera iritsi da eta Nora Mendizabal ateetan geratu da. Mendizabal-Beitia bikoteak Erasun-Arrizabalagaren aurka jokatu zuen. Finalerdi gogorra eta bizia izan zen, baina, azkenean, Erasun eta Arrizabalaga gailendu ziren (16-22). Olatz Arrizabalagak bere bosgarren finalerako txartela lortu du. Txapelketako arduradunek diotenez, "Mendizabalen txapelketa guztiko lana azpimarratzekoa izan da".



EMAKUME CUP



Irazu. ORIAMENDI

Abiatzear da Berria erremonte-txapelketa

ERREMONTEA Irazu-Zaldua eta Jabalera-Goikoetxea V bikoteekin abiatuko da, larunbat honetan

Erredakzioa URNIETA

Antolatzaileen esanetan, "etorkizuneko eta eskarmentu handia duten erremontariak jokatu dute Berria txapelketa". Txapelketa larunbat honetan hasiko da eta finala, berriz, datorren apirilaren 20an. Partida guztiak Galarretan jokatu dira. A taldeko hiru bikoteak ondorengoak dira: Susperregi-Apezetxea; Irazu-Zaldua I; eta Jabalera-Goikoetxea VI. B taldeko bikoteak, berriz: Arluziaga-Zubiri; Gurrutxaga-Aiestaran VI; eta Zaldua II-Eskudero.

Ligaxka martxoaren 9an, 16an, 22an, 29an eta apirilaren 6an jokatu da.

Hendaiako eta Hernaniko igerilariekin topaketa

IGERIKETA Aurreko larunbatean Buruntzaldea IKT taldeko 18 kidek Hazparneko Igerikatzea eta Hernani K.E. igeriketa taldeekin antolatutako topaketa hartu zuten parte, euskara eta igeriketa ardatz hartuta. "Hiru taldeen artean 60 haur eta gazte inguru elkartu ginen, eta goiz paregabea igaro genuen saio dibertigarria eginez. Eskerrak eman nahi dizkiogu Hernani K.E.ri eta Udalarari honelako ekintza bat gauzatzeko espazioa uzteagatik eta halako topaketa alde egiteagatik".



BURUNTZALDEA IKT

Kopari ekin dio UKEk

FUTBOLA Denboraldiaren azken txanpan, kopa jokatu du UKEko lehen taldeak. Liga jokatu ostean, Urnietako futbol taldeak kopari ekin dio. Aurreko asteburuan jokatu zuten lehen jardunaldia, eta Orioko zelaian berdinketa eskuratu zuten (2-2). Asteburuan etxean ariko dira Antigua Luberriren aurka. Zortzi talde ari dira Kopa lehiatzen.



UKE

Lehengo lepotik burua

TXIRRINDULARITZA Espainiako kopako lehen lasterketan aritu ziren Andoaingo Txirrindulari Eskolako neskek, Kantabriako Nojan. Iaz erakutsitako maila berretsi dute, errepideko denboraldiko lehen lasterketan. Izaro Etxarri hirugarren sailkatu zen, Irati Aranguren 17. eta Intza del Teso 39. postuetan. Eguraldi hotzak eta euririk baldintzatu zuten lasterketa.



CICLISMO GONZALEZ

HITZORDUAK

ASTEARTE EGUERDIA BAINO LEHEN IGORRI HITZORDUAK. Tel.: 943 300 732 / andoain@aiurri.eus

OSTEGUNA 7

ANDOAIN Erakusketa

EmPoderArte Emakume Artisten Nazioarteko Elkartearen erakusketa, bertako artistekin batera.

Ohiko ordutegia, Bastero.

ANDOAIN, URNIETA Errigora

Martxoaren 13ra bitarte Nafarroa hegoaldeko oliba-olio birjina estra, arroz, pasta, kontserbak, lekaleak eta ardo loteak erosteko aukera.

Eskaerak: Errigora.eus gunea.

URNIETA Solasaldia

Urnietako Jabekuntza Eskola: Literatur solasaldia.

16:00-18:00, Lekaio.

URNIETA Irekiera

Denda Berri tabernaren irekiera.

19:30, Denda Berri. DJ saioa.

OSTIRALA 8

URNIETA Elkarretaratzea

Egitarau osoa 9. orrialdean.

18:00, San Juan plaza.

ANDOAIN Manifestazioa

Andoaingo Asanblada Feministak deituta. Egitarau osoa 9. orrialdean.

18:30, Goikoplaza.

IGANDEA 10

ANDOAIN Kontukari ikuskizuna

Nanuk, adi-adi entzungo ditu amonak ezkututzen dituen istorioak.

Bi saio: 12:00, 17:00. Bastero.



Maddalen Arzallus. BERTSOA

ANDOAIN Bertso-poteoa Miren Artetxe eta Maddalen Arzallusekin

Traka talde feministak antolatuta, bertso-poteoa izango da ostegun honetan. Bi bertsolari ezagunekin batera Aizpea Arruti eta Goiatz Salbador trikitixa joz ariko dira.

Martxoak 7, osteguna. 19:30, kalez kale.

ASTELEHENA 11

ANDOAIN Bilera

Sanjuanak antolatutako lehen bilera.

19:00, Bastero.

ASTEARTEA 12

URNIETA Antzerkia

"Masustondoen patioa" aurre-estreinaldia. Aktore ezagun ugarirekin: Sara Cozar, Martxelo Rubio, Aizpea Goenaga, Dorleta Urretabizkaia, Olatz Beobide.

19:00, Sarobe.

OSTIRALA 15

URNIETA Pailazoak

"Ez gara jaitziko" ikuskizuna, Porrotx, Marimotots eta lagunekin. Sarrerak 8 eurotan salgai Urnietako 2KNn, Andoaingo Ernaitzan eta Aiurriko bulegoetan salgai.

Bi saio: 17:00, 19:00. Sarobe.

ANDOAIN Opera

"Badon" opera garaikidea, Korrika Kulturalak antolatuta. Hainbat artisten topaleku bilakatu da ikuskizuna.

20:30, Bastero.

Gipuzkoako Eskolarteko Bertsolari Txapelketa Andoainen

Kotoi elkartean ospatuko da bigarren kanporaketa, ostiral honetan. Afalostean ekingo diote kantuari

Aiurri komunitatea**Gipuzkoako Bertsozale Elkartea**

Aizarnazabalen jokatu da Gipuzkoako Eskolarteko lehen kanporaketa, Mikel Elkartea leporaino betea zela, giro ezin hobean. Hasiera ederra izan du eskolar-

tekoak. Afaritarako sarrera guztiak agortuta, 70 lagunetik gora bildu ziren ostiral iluntzeko saiora. Bertsolariak ere ederki erantzun zioten hango giroari, eta saio ona osatu zuten guztien artean. Kattalin Arabolaza ira-

bazlearekin batera aritu ziren kantuan Urko Arakistain, Jakes Etxeberria, Joanes Azpillaga, Suhar Gesalaga eta Jare Antzizar.

Ostiral honetan, Andoainen

Bigarren kanporaketa Andoainen izango da, martxoaren 8an, Kotoi Elkartean. Xuban Urdailleta, Nikola Iraola, June Aiestaran, Jare Bengoetxea, Peru Alijostes eta Eñaut Olarra ariko dira bertsotan. Sarrerak salgai daude www.bertsosarrerak.eus webgunean.

ZINEMA

**ANDOAIN****BASTERO****Sala de profesores**


Lar, 9. 19:30, 22:00.
Ig, 10. 19:30.
Astl, 11. 19:30, 22:00.

Kung Fu Panda 4

Lar, 16. 17:00.
Ig, 17. 17:00.

Priscilla

Lar, 16. 19:30, 22:00.
Ig, 17. 19:30.
Astl, 18. 19:30, 22:00.



SINOPSIS

**Sala de profesores (Das Lehrerzimmer)**

Zuzendaria: Ilker Çatak. **Gidoia:** Johannes Duncker, Ilker Çatak.

Aktoreak: Leonie Benesch, Eva Löbau, Leonard Stettinisch, Michael Klammer... **Herrialdea:** Alemania (2023). **Hizkuntza:** Gaztelania.

Generoa: Drama. **Iraupena:** 99 min.

Eskola eta kontrol soziala

Carla Nowak matematika eta kirol irakasle idealista da. Eskolan lapurreta batzuk gertatzen direnean eta bere ikasle bat susmatzen denean, gaiaren muinera bere

kabuz iristea erabakitzen du. Carla guraso suminduen, lankide tematien eta ikasle oldarkorren artean bitartekari lanak egiten saiatzen da.



Lehen kanporaketan kantuan aritu ziren bertsolari gazteak. BERTSOZALE

"Egundoko ilusioarekin ekingo diogu, ostegunetik bertatik"

MAIALEN ARIAS, CRISTIAN GONZALEZ TABERNARIAK
Ostegun iluntzean zabalduko dute Urnietako taberna



Cristian Gonzalez eta Maialen Arias, Denda Berri tabernaren kanpoaldean. AIURRI

Xabier Lasa URNIETA

Maialen Arias eta Cristian Gonzalez urnietarrek hartu dute Denda Berri tabernaren ardura. Eskarmentu handia pilatu dute ostalaritzan, eta egundoko ilusioarekin heldu diote erronkari. Ostegunean irekiera ekitaldia egingo dute 19:30etik aurrera. **Gogo bizik ikusten zaizue, osteguna noiz iritsiko zain...**

Cristian Gonzalez: Halaxe da, aurre prestaketa-lanetan pare bat aste igaro ditugu, eta taberna irekitzeko egin beharreko gehienak eginda, pittin bat urduri bai, baina, batik bat, ilusioz gainezka gaude.

Maialen Arias: Irekieraren hitzordua ahoz ahoz zabaltzen ari gara inguruan, eta ikuskizun handi samarra sumatu dugu jendearen aldetik. Festa giroan nahi genuke ireki, eta horretarako, 80ko eta 90eko musikarekin helduko da Katxorro DJa, eta pintxoak dastatzeko doan jarriko dira.

Ostalaritzatik zatozte biak ere.
C.G.: Urnietako jatetxe eta tabernetan urtetan lan egindakoak gara, negozioa barrutik ezagutu dugu. Jakina, besteentzat aritu izan gara lanean. Gaur arte. Geure buruaren nagusi izatera igaroko gara, beraz. Aldaketa hori, oraindik, ere motibagariagoa egiten zaigu erronka.

guk ere jakiteak zer nolako bezero mota izango dugun, bada horrek ere asko erraztu dezake tabernaren funtzionamendua.

Denda Berri herriko elkarten egoitzan, beheko solairuan kokatzen da taberna.
M.A.: Bai, eraikinaren goiko partean, Denda Berri Jubilatua eta Pentsiodunen egoitza kokatzen da, AEK-k ere hor dauka euskaltegia, antzematen da zenbait elkarte poliki-poliki ari direla leku berrira egokitzen, beren dinamikarekin... Pozgarria da eraikina hartzen ari den bizitza; ziur gaude aberasgarria izango dela Urnietako kultura eta gizarte dinamikan. Eta espero dugu tabernak bere ekarpena egitea, urnietarrei ireki zaien errealitate berri horretan; gure aletxoak jartzen ahaleginduko gara.

Zer topatuko dute Denda Berri tabernan, bezeroek?

C.G.: Lehenengo eta behin, profesionaltasun handienarekin egingo dugu lan. Taberna abian jarri ahala, hainbat detaile zehazten joango gara, baina, oraingoz, baiezta dezakeguna da astelehenetik ostegunera gosariak, pintxo beroak, plater konbinatuak, ogitartekoak... eskura egongo direla. Asteburuetan, oraindik ere baloratzen ari gara zer jarri zer ez, baina jada menu jakin bat badaukagu burutan: errazio desberdinak hasteko, saiheskia ala txipiroiak bigarrenko platererako, eta ohiko postreak, amaitzeko.



AIURRI

Himalayako zeharkaldiak hizpide

Iñaki Eizmendi hernaniarrak eta Oskar Sanchez, Joxelu Zuriarrain eta Alfredo Rodriguez andoaindarrek Kanchenjungako eta Annapurnako bi trekingak hizpide izan zituzten Urigainen. Argazki ikusgarri ugari erakutsi zituzten, ikusleen gozamenerako. Aitor Iginitz andoaindarra gidari izan zuten bi trekingetan. Datorren astean hari egindako elkarrizketa argitaratuko du Aiurrik.



AIURRI


Egunean Behin 14D denboraldia

Seigarren asteko sariduna "Manolete" izan da, aski pertsona ezaguna Andoain eta Urnieta aldean. Otsailak 19-26 asteko 7 partidak jokatu zituen, eta ehunka lehiakide dituen Aiurri taldean bera izan da zozketaren irabazlea. Egunean Behin lehiaketa ezagunaren denboraldi berrian Arruti gozotegiko saria zozkatzen ari gara, "Aiurri" taldeko partaiden artean.



andoainDARRA
euskaraz

ZORION-AGURRAK



ANDOAIN
Irati Nuñez Larrea
Martxoaren 13an 15 urte beteko dituzu. Pila bat maite zaitugu. Denon partetik, muxu handi bat.



ANDOAIN
Alaia
Martxoak 8an zure urtebetetzea maizta! 12 urte betetzen dituzu eta gogotsu gaude zurekin ospatzeko. Oso harro gaude zutaz! Jarraitu horrela! Asko maite zaitugu txikitina! Etxekoak

ODOL-EMAILEAK

HITZORDUA

Martxoak 11, astelehena.
ANDOAIN

Andoaingo anbulatorioan hitzordu berria: 16:30etik 20:30era. Itxaronaldiak saihesteko, hitzordua hartu behar da astelehen goizean bertan 943 00 78 84 telefono zenbakira deituz.



Martxoak 25, astelehena.
URNIETA

Plazido Muxika enparantza: 16:30etik 20:30era.

MERKATU TXIKIA

ALOKAIRUA

Etxebizitza alokagai Anoetako herrian. Bi logela, egongela, eta sukaldea. Tren geltokitik gertu. yogurinn@hotmail.com

LANA

Pertsona bat behar da Zizurkilen, heldu bat zaintzeko. 655 717 625

Pertsona baten bila gabiltza Andoaingo taberna batean lan egiteko. Lanaldia: 10 ordu astean. Astelehenetik ostiralera 2 goiz (bakoitzean 3 orduko lanaldia), ostegun arratsaldeak (2 ordu) eta hamabost egunean behin igande goiz bat (2 ordu). 675 989 610

Eutsi gureari!



Nafar hegoaldeko uzta eskutik eskura

otsailak 25 - martxoak 13



errigora.eus

Eskatu Nafarroa hegoaldeko oliba-olio birjina estra, arroza, pasta, kontserbak, lekaleak eta ardo loteak euskaraz etiketatuta eta ekoizlearen jatorrizko prezioan.



Badon

Opera garaikidea

Martxoak 15, ostirala. 20:30, Bastero

